

Gerard de Nerval

Sylvie

Valois-eko oroitzapenak

euskaratzailea: Joseba Urteaga

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Joseba Urteaga.

Euskarazko edizioa: Igela, 2000

Jatorrizkoaren data: 1854

Gerard de Nerval euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=267>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1274>

I GAU GALDUA

Gauero palkoetan galai gorteatzaile modura jantzita azaltzen nintzen teatrotik irteten ari nintzen. Batzuetan beterik egoten zen; bestetan, berriz, hutsik. Berdin zitzaidan begirada hogeita hamar bat antzerkizale boluntario soilik zeuden patiora luzatzea edo kapelu eta jantzi zaharkituz apaindutako palkoetara, edo sala animatu eta jendetsu baten partaide izatea, bere pisu guztiak traje loredunez, bitxi distiratsuz eta aurpegi alaiez gainezka zeudenean. Salako ikuskizunak ez zidan ardura, eta agertokikoak ozta-ozta lortzen zuen nire arreta bereganatzea, baldin eta ez bazen sasoiko maisu-lan gozakaitz baten bigarren edo hirugarren eszenan ongi baino hobeto ezagutzen nuen agerpen batek espazio hutsa argitzen zuenean eta, hats-bafada batez eta hitz batez, nire inguruko figura hutsal haiei bizia itzultzen zienean.

Emakume harengan bizi nintzela sentitzen nuen, eta bera niretzako bakarrik bizi zen. Haren

irribarrea sekulako zorion-iturria zen niretzat; haren ahots hain ezti eta, aldi berean, tinbre indartsukoaren bibrazioak bozkarioz eta amodioz dardararazten ninduen. Nire irudiko, perfekzio guztiak zituen, nire gogo bizi eta apeta guztiak asetzen zituen: eguna bezain ederra aurreko fokuek behetik argitzen zutenean, gaua bezain zurbila intentsitatea galtzen zutenean eta goiko armiarmaren errainuez argiturik geratzen zenean, are eta naturalago agertuz, bere berezko edertasunari esker itzalean distiratsu, Herculanoko freskoen hondo okreen gainean Ordu jainkotiararak, bekokian izar bat dutela, nabarmentzen diren bezala.

Urtebete igaro zen eta ez zitzaidan bururatu ikertzea nolakoa izan zitekeen teatrotik kanpo; haren irudia eskaintzen zidan ispilu magikoa lausotzeko beldur nintzen, eta zerbaiti jaramon egin banion, emakumeari buruzko zenbait zurrumurru egin nien gehienez ere, eta ez aktotesari buruzkoei. Eta Elidako printzesa edo Trebisondako erreginari buruz zabal zitezkeen esamesek bezain interes eskasa piztu zuten niregan; izan ere, nire osaba batek, XVIII. mendeko azkenau-

rreko urteetan bizi izan baitzen oso bizimodu aproposa eramanez garai hura ongi ezagutzeko, laster jakinarazi zidan aktoreak ez zirela emakumeak, eta naturari ahaztu egin zitzaiola haiei bihotza ematea. Bere garaiko aktoresez arituko zen, jakina, baina hainbeste istorio kontatu zizkidan bere ilusio eta dezepzioez, eta hainbeste marfilezko erretratu erakutsi zizkidan, gerora tabakontziak apaintzeko erabili zituen medaloi xarmangarriak, hainbeste amodiozko gutun horixka, hainbeste xingola ximel, bakoitzaren historia eta amaieraren kontraeraz horniturik, non emakume guztiez gaizki pentsatzera ohitu bainintzen garai bakoitza den bezalakoa dela aintzat hartu gabe.

Garai bitxia zen gurea benetan, iraultzen eta erreinu handien erorketen ondoren suertatzen diren horietakoa. Galduak ziren Fronda garaiko kortesia heroikoa, Erregeordealdiko bizio dotore eta etiketazkoak, Direktorioko eszeptizismoa eta orgia zoroak. Dena erabat nahastuta zebilen: aktibitatea, zalantza eta nagikeria, utopia distiratsuak, asmo filosofiko edo erlijiosoak, nolabaiteko ernaberritze-senarekin nahasiriko gogo

lauso biziak, iraganeko desadostasunek eragini-ko nahigabea, itxaropen zalantzagarriak... Peregrino eta Apuleioren garaiaren antzeko zerbait. Gizon materialak bere onera ekarriko zuen arrosa-sorta bat jasotzea espero zuen Isis ederraren eskutik. Jainkosa beti gazte eta liraina gauetan agertzen zitzaigun eta lotsa sentiarazten zigun egunean zehar galdutako orduengatik. Gazteak izanik, handinahiak ez zuen eragirik guregan, ordea, eta garai hartan hain zabaldua zegoen gizarte maila egokia eskuratzeko eta ohore ehi-zarako egarri aseगत hark urrundu egiten gintuen aktibitate-esparru posibleetatik. Geratzen zitzaigun babesleku bakarra poeten marfilezko dorrea zen, non gero eta gorago igotzen baikin-jendearengandik bereizteko asmoz. Guk propio aukeratutako maisuek gidatzen gintuzten eremu garai haietan barrena, eta han soilik arnas genezakeen bakartasunaren aire garbia, han edaten genuen hainbestetan amestutako ahanztura kondairen urrezko kopan, eta han hor-ditzen ginen poesiaz eta amodioz. Amodioa, ai! Forma lausoak, tonalitate arrosa eta urdinxkak, mamu metafisikoak! Gertutik ikusita, egiatzko

emakumeak asaldatu egiten gintuen gure xalotasunean; erregina edo jainkosa bezala azaldu behar zitzaigun, eta haren hurbiltasuna saihestu behar izaten genuen, batez ere.

Gutako batzuek, alabaina, ez zituzten estimu handian paradoxa platoniko haiek, eta gure Alexandriako amets eraberritueta jasotzen zuten, aldian behin, lurpeko jainkoen zuzia, zeinak instant batez iluntasuna argitzen baitzuen bere txinpart-lorrazarekin. Teatrotik irteten arin nintzen, beraz, ametsak ezabatzen direnean uzten diguten tristezia mingotsean murgildurik, eta zirkulu bateko ohikoekin biltzera nindoan gogo onez. Zirkuluan lagunarte ugarian afaltzen genuen eta melankolia ñimiñoenak ere amore ematen zuen, betidanik eraberritze eta dekadentzia garaietan existitu ohi diren zenbait izpiritu distiratsu, bizkor, oldarkor, eta batzuetan goigoikoaren inspirazio agortezinaren aurrean. Eztabaidak hain sutsuak izaten ziren, non gutako lotsatienak leihoetara joaten ziren noizbehinka ea azkenik hunoak, turkomanoak edo kosakoak iristen ziren, erretorikoen eta sofisten argudioekin behin-betiko amaitzeko.

«Edan dezagun, maita dezagun, hori da eta jakinduria!» Hori zen gazteenen lema bakarra.

— Urteak dira teatro berean topatzen zaitudala, eta joaten naizen bakoitzean gainera. Zu *norengatik* zoaz?

Norengatik?... ez zitzaidan iruditzen hara inor beste *norbaitengatik* joan zitekeenik. Izen bat aitortu nuen, hala ere.

— Oso ongi! —ihardetsi zuen nire lagun bar-kaberak—. Hortxe duzu etxera lagundu dion gizon zorionekoa. Gure zirkuluko arauen jarraitzaile leiala denez, agian egunsentira arte ez da berarekin elkartuko.

Aipatu zidan pertsonaiari begiratu nion aparteko zirrararik gabe. Ongi jantzitako gaztea zen, jokamolde finekoa, aurpegi zurbil eta urduria eta begi gozo eta malenkoniatsuak zituena. Whist-eko mahai batera urrea botatzen zuen eta axolagabeki galtzen zuen.

— Zer ardura zait niri hori edo beste norbait izatea? —esan nuen—. Norbaitek lagundu behar zion eta ongi aukeratua iruditzen zait.

—Eta zu?

—Ni? Ni irudi baten atzetik nabil, besterik ez.

Irteterakoan irakurketa gelatik igaro nintzen eta ustekabeko begirada bat bota nion egunkari bati. Uste dut burtsako kotizazioen berri jakiteko izan zela. Nire aberastasunaren hondarren artean, diru-kopuru handi xamarra neukan jarria atzerriko baloreetan. Aspalditik gutxietsirik bazeuden ere, zurrumurruek zioten gero eta balio handiagoa lortuko zutela, eta horixe gertatu berria zen ministerio aldaketa baten ondorioz. Fondoek oso kotizazio altua erdietsi zuten. Aberatsa nintzen berriro.

Egoera aldaketa horren ondorioz gogoeta bakar bat izan nuen, aspalditik maite nuen emakumea nirea izango zelakoa, nahi izango banu. Nire ideala eskura nuen. Ez ote zen beste ilusio bat, beste errakuntza barregarri bat? Gainontzeko egunkariak ere gauza bera zioten, ordea. Irabazitako dirutza Moloch-en urrezko estatua bailitzan altxatu zen nire aurrean. «Zer esango luke orain arestiko gazteak —pentsatu nuen— haren lekua hartuko banu bakarrik utzi duen emakumearen ondoan?... » Gogoetak dardarizoa eragin zidan, eta urguilua asaldu zitzaidan.

Ez! Ez da horrela, nire adinean ez da amodioa urrez hiltzen: ez naiz emakume-galtzaile bat izango. Ideia zaharkitu bat besterik ez da, bestalde. Nork ziurtatzen dit emakume hori saltzen diren horietakoa dela? Arreta handiegirik gabe jarraitu nuen egunkaria gainbegiratzen, eta honako bi lerrook irakurri nituen: «*Lore-sorta Probintzialaren Festa.*— Bihar Senlis-eko arkulariek Loisy-koei itzuliko diete lore-sorta.» Hitz xume haiek inpresio sail berri bat piztu zuten niregan: aspaldi ahaztuta nuen nire jaioterriko oroitzapen bat zen, gaztaroko festa xaloen oihartzun urruna. Adar eta danborraren soinua entzuten zen urrunean, herrixka eta basoetan; neska-tiek girlandak txirikordatzen zituzten eta abesten zuten bitartean xingolaz apainduriko lore-sortak atontzen zituzten. Idiek garraiatutako gurdi astun batek jasotzen zituen opari haiek. pasatzerakoan, eta guk, eskualde hartako haurrek, jarraigoa osatzen genuen gure arku eta geziekin, geure buruei zaldun titulua emanaz, jakin gabe monarkiak eta erlijio berriak baino luzeago bizi zen druida-festa bat errepikatu bes-

terik ez genuela egiten, mendeetan zehar egin zen bezala.

II ADRIENNE

Oheratu nintzen eta ezin izan nuen atsedetik hartu. Erdi-lo, erdi-esna nengoela, gaztaro osoa kurritu nuen nire oroitza-penetan. Aldarte horrek, izpirituak artean aurre egiten baitie ametsen konbinazio bitxiei, sarritan bizitzaren denboraldi luze bateko eszena nabarmenenak desfilatzen ikustea ahalbidetzen du minutu batzuetan.

Henri IV.aren garaiko gaztelu bat imajinatu nuen fatxada gorrizta eta arbelezko teilatu pikoekin, harri horixkaz eginiko zoko koxkadunekin; enparantza berde zabal bat ezki eta zumarrez inguratua, zeinen hostotza eguzkiaren errainu gorriminek zeharkatzen baitzuten. Soropilean neska batzuk dantzan ari ziren biribilean, beren amek erakutsitako antzinako erromantzeak abesten, hain frantses berez garbian, non batek sentitzen zuen benetan Valois-eko herrialde zahar hartan bizi zela, mila urte baino gehiago-

tan Frantziako bihotza taupadaka aritu den lekuan.

Neu nintzen taldeko mutil bakarra eta hasieratik eraman nuen nirekin Sylvie nire laguna, artean oso gaztea, ondoko herrixkako haur bat, oso bizi eta osasuntsua. Haren begi beltzak! Haren soslaiaren edertasuna! Haren larruazal belztuxea!... Hura besterik ez nuen maite, harentzat besterik ez nuen begirik... ordura arte! Ez nion ia erreparatu dantzatzen ari ginen taldeko neska horail, garai eta eder bati; Adrienne zuen izena. Bat-batean, dantzaren arauetara jarraituz, Adrienne nirekin bakarrik aurkitu zen zirkulu erdian. Garaiera berekoak ginen. Elkarri muxu emateko esan ziguten, eta dantza eta taldea sekula baino bizkorrago zihoazen. Muxu eman nionean, eskua estutu behar izan nion. Haren urrezko adatsaren ile kizkur luzeek masaila ukitu zidaten. Handik aurrera aztoramen ezezagun bat jabetu zen nitaz. Neska ederrak abestu egin behar zuen dantzara itzultzeko eskubidea berreskuratzeko. Haren inguruan eseri ginen eta berehala, lurralde lanbrotsu hartan neskek izan ohi duten ahots garbi eta ozenaz, malenkoniak

eta amodioz beteriko antzinako erromantze horietako bat abestu zuen, norbait maite zuelako aitak dorre batean itxi duen printzesa baten ezbeharrak kontatzen dituztenetakoa. Ahots gazteek amonen ahots dardaratia bibrazio modulatu batez imitatzen dutenean hain egokiro nabarmentzen dituzten tremoloekin amaitzen zen melodia, ahapaldi bakoitzean.

Neskak abesten zuen bitartean, itzala zuhaitz handietatik jaisten ari zen, eta ilargi zuri atera berriak bete-betean ematen zion, eta gure zirku-lu arretatsutik bereizten zuen. Isildu egin zen, eta inor ez zen ausartu isiltasuna haustera. Soropila lurrin fin kondentsatu batez estalita zegoen, eta belar puntetan ihintzaren maluta zuriek distiratzten zuten. Paradisuan sentitzen ginen. Ni altxatu egin nintzen, azkenean, eta gazteluko parterrerantz joan nintzen korrika, han ereinotzak baitzeuden landaturik, kamafeo margotuz apaindutako portzelanazko lorontzi handietan. Bi erramu-adar hartu nituen, eta koroa forma emanetz txirikordatu ostean, xingola batez lotu genituen. Gero Adrianneri ipini nion buruan apaingarri modura eta ereinotz-hostoek distira egiten

zuten haren urrezko ilearen gainean ilargi-argitan. Danteren Beatriz zirudien, egoitza santuen mugan alderrai dabilen poetari irribarre eginez .

Adrienne zutitu egin zen. Beso lirainak zabaldu zituen, erreberentzia xarmant bat egin zigun eta gaztelura itzuli zen korrika. Esan ziguten Frantziako antzinako errege-erreginekin ezkontzaz lotutako familia baten ondorengo baten biloba zela; Valoistarren leinukoa zen. Jaieguna zenez, gurekin jolasean aritzen utzi zioten; ez genuen berriro ikusiko, ikasketak egiten ari zen komentura itzuliko baitzen biharamunean .

Sylvierengana itzuli nintzenean, konturatu nintzen negarrez ari zela. Abeslari ederrari oparitu nion koroa zen malko haiek eragin zituena. Beste bat ekarriko niola esan nionean, erantzun zidan merezi ez zuenez, ez zuela ezertarako nahi. Neure burua zuritzen saiatu banintzen ere, ez zidan hitzerdirik ere esan bere gurasoenera lagundu nion bitartean.

Ikasketak jarraitzeko Parisera itzultzera beharturik, irudi bikoitza neraman nirekin: zoritarrez etendako adiskidetasun min batena eta ezinezko amodio lauso batena, filosofia akade-

mikoak baretu ez zitzakeen gogoeta mingarrien sorburu zena.

Bietatik bat suertatu zen garaile: Adrienne-ren irudia, distira eta edertasunaren ametsa, ikasketa-ordu latzak leuntzen eta arintzen zizkidana. Hurrengo urteko oporretan jakin nuen ozta-ozta atzemandako neska eder hura moja izateko bidean jarri zuela bere familiak.

III

ERABAKIA

Erdi amesturiko oroitzapen hark argitu zidan gertatzen zitzaidan guztia. Teatroko emakume batentzat asmatuiko amodio lauso eta esperantzarik gabe hura gauero nagusitzen zen nitaz antzezpeneko orduan eta ez ninduen uzten to egiteko ordura arte. Orain banekien Adrieneren oroitzapena zela haren sorburua. Adrienne, ilargiaren argitasun motelean irekitako gaueko lorea, lurrin zuritan erdi bainaturiko belar berdearen gainean emeki mugitzen zen kimera arrosa eta urrekara. Aspaldi ahaztutako aurpegi baten antzekoa marrazten zen orain oso garbi; denborak lausoturiko marrazki bat zen, pintura bihurtzen zena, museo batean miresten ditugun maisuen zenbait bozetorekin gertatzen zaigun bezala, haien original distiratsuak beste nonbait aurkitzen ditugunean.

Aktoresa baten itxurapean moja-gai bat maitatzea ere!... Eta bera izango balitz? Zoratzeko modukoa da! Ur geldiko ihien artean ihesi doan

argi-txakurrak bezala erakartzen nauen misterio horri nago halabeharrez loturik... baina itzul gaitezen errealitatera.

Zergatik ahaztu ote nuen duela hire urte hain maitea nuen Sylvie?... Oso neska polita zen, Loisyko ederrena!

Hura bizirik dago, zintzoa da eta bihotz ona du seguruenik. Haren leihoa ikusten dut berriro, mahats-hosto eta arrosez inguratutik, eta txinboen kaiola zintzilik duela ezker aldean; ehoziri ozenen soinuarekin batera, haren abesti kuttunena entzuten dut:

Neska ederra eserita zegoen
errekastoaren ondoan...

Nire zain dago oraindik... Nor ezkon zitekeen berarekin? Hain da pobrea!

Herriko eta inguruetako nekazari onbera brusadunak, esku zakar, aurpegi ximel eta larruazal zaildukoak! Ni bakarrik maite ninduen, ni, paristarra, nire osaba zenari bisitan joaten nintzaionean Loisy ondoko etxera. Hiru urte daramatzat utzi zizkidan ondasun xumeak, bizitza osorako

balioko zitzaizkidanak, xahutzen. Sylvierekin ongi zainduta egongo ziren. Halabeharrak zati bat itzuli dit. Aukerarik badut oraindik.

Zertan ari ote da une honetan? Lotan egongo da... Ez, ez dago lotan; gaur uztaiaren festa da, gau osoan dantza egiten den urteko egun bakarra. Festan izango da...

Zer ordu ote da?

Ez nuen erlojurik.

Garai hartan antigoaleko etxebizitza batek bere benetako itxura berreskura zezan biltzen ziren objektu apaingarrien artean, Errenazimentuko kareizko erloju horietako bat nabarmentzen zen distira berriztatu batez; Denboraren estatua-txoa du ganean, eta erlojuari eusten dioten Medicis estiloko kariatideak erdi zutituriko zaldien ganean daude. Diana klasikoa, ukondoak bere oreinaren ganean jarririk, baxuerliebe batean dago esferaren azpian, non hondo nikelatu baten ganean nabarmentzen diren orduen zenbaki esmaltatuak. Makinariari, bikaina zalan-tzarik gabe, inork ez zion giltza eman azken bi mendeetan. Ez nuen erloju hura Touraine-n erosi ordua jakiteko.

Atezainarenera jaitsi nintzen. Kuku-erlojuan goizeko ordu bata zen. «Lau ordu barru Loisyko dantzaldian egon naiteke» —esan nuen neure artean.

Palais-Royaleko plazan bospasei zalgurdi geratzen ziren zirkulu eta kasinoetako ohikoen zain.

—Loisyra —agindu nion itxura onena zuenari.

—Loisy? Non dago hori?

—Senlisetik gertu, zortzi legoatara.

—Posta-bidetik joango gara —esan zuen zaldizainak batere kezkatu gabe.

Zein tristea den gauetz Flandeseko bidea! Izan ere, ez da basoen eremura iritsi arte eder bilakatzen! Forma lausoko bi zuhaitz-ilara monotono horiek besterik ez denbora guztian; soro berdeak eta lur irabiatuak urrutian, eta ezkerrean Montmorency, Ecouen eta Luzarches-eko muino urdinxkak. Gonesse-ra heldu gara, Liga eta Fronda-ko oroitzapenez beteriko herri arrunta...

Louvres-etik haraindik bide batean sarritan ikusi izan ditut bide-ertzeko sagarrondoan loreak gauean distiratzen izar lurtiarrak bailiran. Hona

hain sarri etortzen nintzen garaiko oroitzapenak
osa ditzagun, kotxeak aldapak igotzen dituen
bitartean.

IV

ZITEREARAKO BIDAIA

Urte batzuk igaro ziren: gazteluaren aurrean Adrienne ezagutu nuen garaia haurtzaroko oroitzapen bat besterik ez zen jada. Zaindariaren jaierako Loysin nintzen. Uztaiaren zaldunekin elkartzera egin nuen berriro, eta lehen ere partaide izan nintzen konpainian leku bat hartu nuen. Jaia aspaldiko familien ondorengo gazteek antolatu zuten, oraindik ere beraienak baitira hango basoetan galdurik dauden hainbat gaztelu, zeinei iraultzek baino kalte handiagoa egin baitie denborak. Chantilly, Compiègne eta Senlisetik zetozen zaldun-talde alaiek beren lekua hartzen zuten uztaiaren konpainien jarraigoan. Herri eta herrixketan zeharreko paseo luzearen ostean, elizako mezaren ostean, trebetasun-lehiaketa eta sari-banaketaren ostean, garaileak bazkaltzera gonbidatu zituzten ezki eta zuma-rren itzalak estalitako uharte batean, Nonette eta Theve ibaiek elikatzen zuten albufera baten erdian. Banderaz apaindutako ontzi batzuek era-

man gintuzten uhartera, zeina besteen artean aukeratu baitzuten tenplu obalatu zutabedun bat zegoelako, banketerako jangela izango zena. Ermenonville-n bezala, eskualde hartan ere nonahi aurki zitezkeen XVIII. mende hondarreko eraikin arin horietakoak, filosofo aberatsek, garaiko gustu nagusiari jarraituz, beren egitasmoetarako inspirazio-iturritzat baliatzen zituztenak. Uste dut tenplu hura, jatorriz, Uraniari eskaini ziotela. Hiru zutabe eta arkitrabe zati bat lurrian zeutzan puskaturik, baina festa aurretik sala barruko hondakinak kendu zituzten, girlandak ipini zituzten zutabeen artean, eta berritu egin zuten nolabait hondar moderno hura, zeina gehiago baitzegokion Bouflers edo Chaulieu-ren paganismoari, Horaziorenari baino.

Bazirudien lakuko zeharkaldia Watteau-ren *Ziterearako bidaia* gogoratzeko asmatu zutela. Gure jantzi modernoek soilik gezurtatzen zuten ilusio hura. Gurdi batean zeramaten lore-sorta erraldoia txalupa handi batean jarri zuten. Lore-sortarekin batera ohi bezala zuriz jantzita zihoan neska-jarraigoa bankuetan eseri zen, eta antzinako teoria bitxi eraberritu hura uharte ertzetik

bereizten zuen albuferako ur bareetan islatzen zen, erabat gorrizta arratseko eguzki-errainuetan bere sastraka arantzadunekin, bere kolomata eta bere hostotza argiekin. Berehala iritsi ziren txalupa guztiak. Lore-otarrea mahai erdian jarri zuten zeremonia handiz, eta jende guztia eseri egin zen, zorte onekoak nesken ondoan: aski zen horretarako haien gurasoak ezagutzea. Horregatik nengoen ni, hain zuzen ere, Sylvieren ondoan. Festan, haren anaia hurbildu zitzaidan eta bere familia bisitatzera aspaldi joan ez izana aurpegiratu zidan. Ikasketekin desenkusatu nintzen, esanez ez zidatela Paristik mugitzen uzten, eta asmo horrexekin etorri nintzela ziurtatu nion.

—Ez, gertatzen dena da nitaz ahaztu dela —esan zuen Sylviek—. Gu herrixka bateko baserri-tarrak besterik ez gara, eta Paris hain dago gai-netik!

Muxu eman nahi izan nion ahoa itxi zezan, baina muturtuta jarraitzen zuen nirekin eta anaiak esku hartu behar izan zuen keinu ezaxolati batez masaila eskaini ziezadan. Muxu hark ez zidan poz handirik eman; izan ere, igarotzen den edonor agurtzeko ohitura dagoen lurralde

patriarkal hartan, muxu bat ematea jende zintzoaren arteko gizalege-erakusgarria besterik ez da.

Festaren zeremonia-maisuek ustekabe bat zuten prestatua. Afal ostean ikusi genuen otarre zabalaren hondotik basa-zisne bat hegaldatzen zela, ordura arte loreen azpian gatibu egondakoa, zeinak bere hegal indartsuekin girlanda eta koroa txirikordatuak altxatu, eta alde guztietara barreiatu baitzituen. Eguzkiaren azken errainuetarantz pozik hegan egiten zuen bitartean, gu koroak harrapatzen saiatu ginen, nork bere alban zuen neskaren bekokia apaintzeko asmoz. Nik politenetako bat lortzeko zoria izan nuen, eta Sylviek, irribarrez, aurreko aldian baino xamurkiago musukatzen utzi zidan. Ohartu nintzen horrela beste garai bateko oroitzapena ezabatzeko nuela. Une hartan erabat miretsi nuen, hain bihurtu baitzen eder! Ez zen jada jende guztia-
ren mesedetara ohitutako neska helduago batengatik nik bazter utzi nuen hura. Onera egin zuen atal guztietan: haren begi beltzen xarma, hain erakargarria umea zenetik, liluragarria zen orain; haren bekainen orbita gakotuaren azpian,

haren irribarreak, zeinak argitzen baitzuen bat-batean aurpegi eder eta lasai bat, atenastar-ukitua zuen. Haren lagunen aurpegi apainen artean nabarmentzen zen fisonomia hura miresten nuen, antzinako artearen duinekoa. Esku luze delikatuek, borobiltzean zuriagoak bihurturiko beso haiek, gerri lirainak, neska zeharo ezberdina bilakatzen zuten, nik ezagutu nuenaren aldean. Zein aldatuta aurkitzen nuen esan behar izan nion, horrela nire aspaldiko desleialtasun bat-batekoa zuzenduko nuelakoan.

Bestalde, dena nire alde nuen, anaiaren adiskidantza, festa haren zirrara liluragarria, ilunabarreko giroa eta lekua bera, non, gustu bereziko fantasia bati esker, antzinako ospakizun galanteen irudia birsortu zen. Ahal genuenaldi oro, ihes egiten genuen dantzalditik gure haurtzaroko oroitzapenez mintzatzeko eta, elkarrekin amets eginez, zeruaren islak miresten genituen uraren eta adarren gainean. Sylvieren anaiak atera behar izan gintuen kontenplazio hartatik, esanez bazela ordua beren gurasoak bizi ziren herrira itzultzeko, urrun xamar baitzegoen.

V HERRIA

Loisyn bizi ziren, goardaren etxe zaharrean. Haraino lagundu nien, eta gero Montagny-raitzuli nintzen, nire osabaren etxera. Loisy Saint S...-etik bereizten duen baso txikia zeharkatzeko bidea utzi nuenean, ez nuen luzaz ibili behar izan Ermenonvilleko basoa inguratzen duen *bidexka* sakona hartzeko; gero legoa-laurden batez luzatzen ziren komentu bateko hormekin topatzea espero nuen. Noizean behin ilargia hodeien atzean ezkututzen zen, eta orduan ozta-ozta argitzen zituen nire oinkaden azpian ugaltzen ziren hareharrizko harkaitzak eta txilar-sastrakak. Bide seinalaturik gabeko baso-mugak nituen ezker-eskuin, eta nire aurrean, han jarraitzen zuten herrialdeko harkaitz druidikoek, erro-matarrek suntsitutako armendiarren oroitzapena gordetzen dutenak, Harkaitz izugarri haien gaitetik albufera urrunak begiztatzen nituen ispi-luak bezain nabarmen lautada lanbrotsuan,

baina ez nintzen gauza izan festa-lekutarako erabili genuena bereizteko.

Giro epel eta gozoa zegoen. Aurrera ez jarraitzea erabaki nuen eta egunak argitu arte itxoitea txilarretan etzanda. Esnatu nintzenean, aurreko gauean galdu nintzen lekuaren inguruko parajeak pixkanaka aztertzeraz egin nuen. Nire ezkerrean, Saint S...-eko komentuko hormen lerro luzea sumatzen zen, eta gero, haranaren beste aldean, Gens d'Armes-en muinoa, egoitza karo-linjio zaharraren hondar koskadunak. Handik gertu, zuhaizti-multzoen gainetik, Thiers-eko abadiaren hondar garaien hormatalak nabarmentzen ziren ortzemugan, hirusta eta ojibaz zulaturik. Harantzago, Pontarme-ko jauregi gotikoak, urez inguraturik garai batean bezala, laster islatu zituen egunaren lehen argiak. Hegoan, berriz, eta Montmeliant-eko lehen mendi-mazelen gainean, Tournelle-ko dorreoi garaia eta Bertrand-Fosseko lau dorreak nabarmentzen ziren.

Gau hura oso gozoa izan zen niretzat eta Sylvie besterik ez nuen gogoan. Komentua ikustean, ordea, agian Adriennerena izan zitekeela otu zitzaidan. Belarrietan nuen oraindik segurue-

nik goizean esnatu ninduen kanpai hotsa. Une batez harkaitz garaieneraino igo eta hormen gaineretik begiratu egiteko asmoa izan nuen, baina, hobeto pentsatu ostean, atzera egin nuen, profanazio bat bailitzan. Egunak aurrera egin ahala, uxatu egin zitzaidan burutik oroitzen hutsal hura, eta Sylvieren hazpegi arrosak besterik ez zitzaizkidan geratu.

—Joan gaitezen esnatzera —esan nuen neure artean, eta Loisyko bidea hartu nuen atzera.

Han dago herria, basoa inguratzen duen bidexkaren amaieran: hormak parra eta arrosondo igokariz oxkarraturik dituzten hogeit hamar etxola. Goizeko iruleak, buruzapi gorri apaindurik, taldean ari dira lanean etxe baten aurrean. Sylvie ez dago beraiekin. Damatxo bat bihurtu da ia farfail finak egiten dituen geroztik, bere gurasoek nekazari zintzoak izaten jarraitzen badute ere. Inor ez zen harritu haren gelara igo nintzenean. Denbora-puska zeraman jaikita, eta farfailak egiteko ehoziriei eragiten zien, zeinek soinu ezta ateratzen baitzuten belaunen gainean jarritakuzen kuxin berdearen gainean.

—Kaixo, alfer hori —esan zuen bere irribarre zoragarriaz—. Ziur naiz jaiki berria zarela.

Kontatu nion gau osoan ez nuela lorik bildu, eta harkaitzen artean eta basoetan barrena ibili nintzela alderrai. Nitaz errukitu zen une batez.

—Nekaturik ez bazaude, oraindik gehiago ibilaraziko zaitut. Othis-era joango gara, izeba bisitatzera.

la erantzuteko astirik izan baino lehen, tupustean zutitu zen pozik, ilea apaindu zuen ispilu aurrean eta lastozko kapelu bat jantzi zuen. Begi xalo eta alaiek distira egiten zioten. Bidean jarri ginen eta Theve-ren ibaiertzari jarraitu genion, bitxilorez eta urrebotoiz jositako belazeetan barrena, eta gero Saint-Laurenteko basoetan zehar, errekaetoak eta sastrakak zeharkatuz bidea mozteko. Zozok zuhaitzetan abesten zuten eta igarotzean ukitzen genituen sasietatik amilotxak hegaldatzen ziren alaiki .

Rousseau-ri hainbeste gustatzen zitzaizkion inkontebelarrak aurkitzen genituen han-hemenka bidean, korola urdinak irekita hosto binakako adar luzeen artean, eta nire lagunaren oin furtiboak geldiarazten zituzten liana xumeak baili-

ran. Genevako filosofoaren oroitzapenei inolako arretarik eskaini gabe, Sylviek han-hemenka marrubi usaintsuak bilatzen zituen bitartean, nik *Heloïse berria*-ri buruz hitz egiten nion eta pasarteak errezitatzen nizkion buruz.

—Polita da? —galdetu zuen.

—Bikaina da.

—Auguste Lafontaine baino hobea?

—Xamurragoa

—A, beno —erantzun zuen—, orduan irakurri egin beharko dut. Anaiari ekartzeko esango diot Senlisera joaten denean.

Eta Sylviek marrubiak biltzen zituen bitartean nik *Heloïse*-ren pasarteak errezitatzen jarraitu nuen.

VI OTHYS

Basotik irtetean, purpura-koloreko kukupra-ka-sail handi bat ikusi genuen; Sylviek sekulako sorta egin zuen, eta esan zidan:

—Izebarentzat dira. Oso pozik jarriko da hain lore politak ikusten dituenen bere gelan jarrita.

Othysera iristeko lautada zati bat zeharkatu besterik ez genuen. Montmeliant eta Dammartin artean dauden mendi-mazela urdinxken gainean herriko kanpandorra nabarmentzen zen. Theveren murmurioa entzun zitekeen berriro ere harri eta harea-harkaitzen artean, bere emaria meheagotzen zihoalarik iturburura hurbiltzen ginen heinean. Ibaiak atsedean hartzen du hango belazeetan eta gladioloz eta lirioren inguraturiko aintzira bat sortzen du. Azkar heldu ginen lehen etxeetara. Sylvieren izebaren etxea tamaina askotako harea-harriz egina zegoen, eta lupulu eta mahats-parrak estalita. Senarra zendu zitzaionetik bakarrik bizi zen, herriko jendeak

lantzen zizkion hainbat txankalek ematen zutenetik. Iloba iristearekin, etxea berpiztu egin zen.

—Egun on, izeba! Hemen daude zure iloba-txoak! —oihu egin zuen Sylviek—. Goseak gaude!

Muxu eman zion maitekiro, lore-sorta besoe-tan ipini zion eta gero ni aurkezteaz gogoratu zen, azkenik.

—Hau da nitaz maiternindua dena!

Neuk ere muxu eman nion izebari.

—Atsegina da... eta ilehoria!... —esan zuen izebak

—Oso ile fina du —esan zuen Sylviek.

—Gauza horiek ez dute luze irauten —esan zuen izebak—. Baina denbora guztia duzue aurretik eta, zu beltzarana izanik, bikote ederra osatzen duzue.

—Gosaria prestatu beharko diogu, izeba.

Eta armairu eta azpiletan arakatuz, esnea aurkitu zuen, ogi beltza, azukrea, eta mahai gainean platerak jartzeari ekin zion ardura handirik gabe, eta lozazko erretiluak atera zituen, lore handiz eta lumaje biziko oilarrez esmaltatuak. Creil-eko portzelanazko katilu handi bat jarri

zuen mahai erdian, esnez eta marrubiz beterik, eta baratzean gerezi eta andere-mahats eskukada batzuk bildu ostean, lorez beteriko lorontzi bana jarri zuen mahai-oihaleko bi muturretan. Izebak, ordea, hitz eder hauek esan zituen;

—Hauek postrea besterik ez dira. Utzidazu niri orain.

Eta zartagina hartu zuen, lurreko suari egurtsorta bat bota ostean.

—Ez dut nahi zuk ezer ukitzerik! —esan zion lagundu nahian zebilen Sylvieri—. Chantillykoak baino farfail politagoak egiten dituzten behatz eder horiek hondatzeko! Batzuk oparitu dizkizazu, eta nik horretaz asko dakit.

—Nola ez, izeba!... Aizu, farfail-pusketa zahar batzuk izango bazenitu, eredu gisa erabil nitzake. —Ongi da. Begiratu goian —esan zuen izebak—.

Agian komodan aurkituko duzu zerbait. —Giltzak utz iezazkidazu —esan zuen Sylviek. —Bai zera! Kajoiak irekita daude.

—Ez da egia. Bat itxita egoten da beti.

Eta emakume zintzoak zartagina sutatik igaro ostean garbitzen zuen bitartean, Sylviek

gerritik zintzilik zeramanaltzairu landuzko giltza-txo hartu zion eta garaipen-keinu batez erakutsi zidan.

Atzetik joan nintzaion bizkor logelarako zurezko eskaileran gora. Ai, gaztaro eta zahartzaro sailduak! Nori burura zekioken lehen amodio baten araztasuna lausotzea oroitzen leialez beteriko santutegi hartan? Iraganeko garai onetako gazte batek irribarre egiten zuen bere begi beltzez eta ezpain arrosez ohe xumearen gainean zintzilik zegoen marko urrekaradun erretratu obal batean. Conde etxeko basozainen uniformeak zeraman soinean; haren militar-itxurako jarrerak, haren aurpegi arrosa eta onberak, haren ile hautsezatu azpiko bekoki garbiak, edertu egiten zuten pastelez eginiko marrazki hura, eskas xamarra agian, gaztetetasunaren eta xalotasunaren xarmaren poderioz. Printze-ehizaldietara gonbidaturiko artista xumeren bat ahalik eta hobekien erretratatzeko saiatu zen, eta baita haren emazte gaztea ere, zeina beste medailoi batean ikus baitzitekeen, erakargarri, maleziatsu eta eder, xingolaz apainduriko gerruntze irekian, burua tente eta aurpegia albo-

raturik, keinu mainati bat egiten ziola bere atzamarrean jarritako txori bati. Eta, halaz ere, une hartan lurreko suan makurturik gosaria prestatzen ari zen amonatxo bera zen. Horrek Funambuluaren teatroko maitagarriak ekarri zizkidan gogora, zeinek maskara ximurtuaren azpian aurpegi erakargarria ezkutatzen duten, azkenean soilik erakusten dutena, Maitasunaren tenplua eta errainu magikoak zabaltzen dituen eguzki birakari bat agertzen direnean.

—Oi, zein ederra zinen, izeba maitea! —oihu egin nuen.

—Eta ni, zer? —galdetu zuen Sylviek ditxosozko kajoia irekitzea lortu zuenean. Barruan tafetazko soineko luze bat aurkitu zuen, zeinen tolesturek kirrika egiten zuten zabaltzerakoan.

—Probatu egingo dut ea nola geratzen zaidan. Maitagarri zahar bat emango dut!

«Ipuinetako maitagarri beti gaztea!... », esan nuen neure artean.

Sylviek bere kotoizko soinekoa askatu eta lurrera erortzen utzi zuen. Izeba zaharraren soineko hanpatsua ezin hobeto zihoakion bere gerri finari. Botoiak lotzeko eskatu zidan.

—Zein barregarriak diren mahuka lisoak! —
esan zuen.

Eta, hala ere, farfailez apainduriko mahuka-
buruek miresgarrero uzten zituzten agerian bere
beso biluziak, eta ezin hobeto egokitzen zitzaion
bere bularrari tul horail eta xingola higatuzko
gerruntze garbia, izebak oso gutxitan erabili izan
zuen bere xarma desagertuak nabarmentzeko.

—Amai ezazu behingoz! Ez al dakizu soineko
baten botoiak lotzen ala? —esan zidan Sylviek.

Greuzeko andregai laboraria zirudien.

—Hauts batzuk beharko genituzke —esan
zuen.

—Aurkituko ditugu.

Kajoiak arakatzen jarraitu zuen. Hura den
altxor pila, hura! Zein usain gozoa zuten, zein
distiratsuak ziren, zein kolore biziko eta luxu
apaleko irisazioak! Nakarezko bi abaniko hautsi
samarrak, kutxa lakatuak marrazki txinatarrez
apainduak, anbarezko lepoko bat eta, hamaika
zirtzileriaren artean, Irlandako diamantez txerta-
turiko belarriak zituzten bi zapatatxo.

Jantzi egin nahi ditut! —esan zuen Sylviek—.
Galtzerdi bordatuak aurkituko banitu...

Une batzuk geroxeago zeta arrosa leunezko galtzerdi batzuk hedatzen ari ginen, orpoan erpin berdeak zituztenak; baina izebaren ahotsak eta zartaginaren zipriztin-hotsak errealitatera itzularazi gintuzten supituki.

Jaitsi agudo! —esan zuen Sylviek, eta protestatu banuen ere, ez zidan utzi zapatak jantzen lagun niezaion.

Izebak, bitartean, zartaginean prestatutakoa azpil batean jarri zuen, hirugihar-xerra eder bat arrautzekin. Berehala deitu zidan Sylvieren ahotsak berriro.

—Jantzi zaitetz agudo! —agindu zidan, eta, bera ordurako erabat jantzia baitzen, komoda ganean zegoen basozainaren eztei-jantzia erakutsi zidan. Instant batean beste mende bateko ezkonberri bat bihurtu nintzen. Sylvie zain nuen eskaileran eta elkarrekin jaitsi ginen, eskutik helduta. Izebari oihu bat irten zitzaion burua jiratu zuenean.

—Ai, ene haur laztanak! —esan, eta negarrez hasi zen. Gero, aurpegia malkoturik, irribarrea loratu zitzaion ezpainetan. Bere gaztaroko irudi bizia ginen. Agerpen anker eta xarmangarria!

Haren ondoan eseri ginen, hunkiturik eta serio-antza, baina berehala itzuli zitzaigun alaitasuna; izan ere, lehenengo momentu hura pasatu zenean, andre xahar onberak bere ezteietako hotsandiko festak gogoratzean soilik pentsatu zuen. Berreskuratu zituen ere, auskalo bere oroimenaren zein leku ezkututatik, eztei-mahaiaren mutur batetik bestera mahaikideek elkarri erantzuteko abestu ohi zituzten aldizkako kantuek, eta dantzatu ostean ezkonberriei abesten zitzaien eztei-eresia. Guk errepikatu egiten genituen errima xinpleko ahapaldi haiek, garaiko hiatu eta asonantziekin, Eklesiasteseko kantua bezain maitekorrak eta apainduak. Udako goiz eder batez senar-emazte izan ginen.

VII CHÂALIS

Goizeko laurak dira. Errepidea lurraren toles-tura batean hondoratzen da; igo egiten da berri-ro. Kotxea Orry-tik zehar igaroko da laster; eta La Chapelle-tik zehar gero. Ezkerretara, Halle-teko basoa inguratzen duen bide bat dago. Handik eramán ninduen Sylvieren anaiak arratsalde batez herrialdeko festa batera bere zalgurdi itxian. Uste dut San Bartolome gaua zela. Baso-etan barrena, inor gutxik erabiltzen zituen bideetan zehar, zaldia hegan zihoan, akelarre batera joango bailitzan. Mont-L'Eveque-n galtzada hartu genuen berriro eta minutu batzuk geroago guardaren etxe aurrean gelditu ginen, Chaaliseko abadia zaharrean. Chaalis, beste oroitzapen bat gehiago!

Karlomagnoren maizter-lurrak garai batean esaten zitzaien eskualdeen arteko onginahizko erakundeek ahazturik, behinolako enperadoreen bakarleku honek arku bizantziarreko klaustroaren harri-hondarrak besterik ez diezazkioke

eskaini bidaiariaren mirespenari. Errepide eta hirietako mugimendutik isolaturiko lurralde honetan, erlijioak Medicis-tarren garaian Este etxeko kardinalak beren egonaldi luzeetan utzi-tako aztarna bereziak gorde ditu: haien ezaugarri eta usadioek badute oraindik ere nolabaiteko galai-kutsu poetikoa, eta Italiatik etorritako artistek dekoratutako kaperen nerbio finezko arku-peeki Errenazimentuko lurrina darie. Urdin argiz pintaturiko gangetan, santu eta aingeruen figura larrosak nabarmentzen dira, Petrarcaren sentimentalismoan eta Francesco Colonnaren alegiazko mistizismoan pentsarazten dutenak, beren alegoria paganoekin duten antzagatik.

Sylvieren anaia eta biok arrotzak ginen gau hartako festa berezian. Oso etxe oneko pertsona batek, lur haien jabea zena garai hartan, lurraldeko zenbait familia gonbidatu zituen antzezpen alegoriko moduko batera, non inguruko komentu bateko zenbait nobiziak parte hartuko zuten. Ez zen Saint Cyr-en tragedien antzeko ezer, baizik eta Valoistarren garaietan Frantziara kanpotik ekarritako lehen saio lirikoaren garaiko antzezpen bat. Antzinako misterio bat zirudien. Jantziak,

guztiak soineko luzeak, koloreengatik soilik bereizten ziren: zeruaren, hiazintoaren, egun-sentiaren kolorekoak. Eszenan aingeruek parte hartzen zuten, mundu suntsituaren hondarren gainean. Ahots bakoitzak deusezturiko munduko gauza zoragarrienetako bati abesten zion, eta heriotzaren aingeruak haren suntsipenaren arrazoa azaltzen zuen. Amildegitik izpiritu bat igo-tzen zen, eskuan suzko ezpata bat zeramala, eta besteei deitzen zien Kristoren, hau da, infernuen aurkako garailearen loria mirestera joan zitezten. Izpiritu hura Adrienne zen, antzezle jantziengatik ez ezik, bere bokazioagatik ere itxuraldatuta zegoena. Bere burn aingerutarrean jarrita zera-man kartoï urrekarako aurak benetako argi-zir-kulua zirudien. Ahotsa indartsuagoa zuen, eta errejistro zabalagokoa, eta kantu italiarraren apaindura amaigabeez eta txorrotxioez estilo soileko esaldiak modu ponpoxoan errezitatu-z bordatzen zituen.

Xehetasunok gogoratzean, benetakoak ote diren ala amestu egin ditudan galdetzen diot neure buruari. Gau hartan Sylvieren anaia apur bat txispaturik zegoen. Guarda-etxean gelditu

ginen pixka batean. Ate gainean —eta horrek biziki harritu ninduen— hegalak zabaldu zituen zisne bat zegoen, eta etxe barruan, landutako intxaurrondo-zurezko armairu garaiak, erloju handi bat bere kutxan, eta zenbait trofeo eta ohorezko uztai eta gezi itu gorri eta berde baten gainean. Ipotx bitxi batek kapelu txinatar bat zuen buruan, eta esku batez botila bati eta besteaz eraztun bati eustsiz, tiratzaileak ongi apuntatzera gonbidatzen zituela zirudien. Uste dut ipotx hura xafla moldatuz egina zegoela. Adrieneren agerpena, ordea, xehetasun horiek eta Chaaliseko abadia bezain egiazkoa ote zen? Hala eta guztiz ere, zalantzarik ez dago guardaren semeak gidatu gintuela antzezpena egin zuten aretora, eta ate ondoan kokatu ginela, eserita eta biziki hunkiturik zegoen jendetzaren atzean. San Bartolome eguna zen, Medicis-tarren oroimenari bereziki loturikoa, zeinen armarrria, Este etxekoarekin batera, harresi zahar haien apaingarri baitzen... Oroitzapen hau obsesio bat soilik izan daiteke agian! Hemen doa, zorionez, Plessis-eko errepidean gelditzen den kotxea; ihes egiten dut ametsen mundutik, eta ordu-laurden

bat besterik ez zait gelditzen Loisyra iristeko inor gutxik erabiltzen dituen bideetan barrena.

VIII

LOISYKO DANTZALDIA

Eguna hurbiltzen denean argiak ahul eta dar-darati bihurtzen diren ordu malenkoniatsu eta oraindik gozoan heldu nintzen Loisyko dantzaldira. Ezkien adaburuak, behealdea ilun bazuten ere, tonu urdinxka hartzen ari ziren. Xirula bukolikoa ez zen jada hain biziki lehiatzen urretxindorraren txorrotxioekin. Jende guztia zurbil zegoen, eta kostatu egin zitzaidan talde sakabanatuen artean aurpegi ezagunen bat aurkitzea. Azkenean, Lise begiztatu nuen, Sylvieren lagun bat. Muxu eman zidan.

—Ez zaitut aspaldian ikusi, paristarra! —oihu egin zuen.

—Ba bai, aspaldian.

—Eta orain al zatoz? Ordu hauetan?

—Posta bidetik.

—Eta presarik gabe, ezta?

—Sylvie ikusi nahi nuen. Dantzaldian al da oraindik?

—Eguna argitu arte ez da joaten. Hainbeste gustatzen zaio dantzan egitea!

Berehala aurkitu nuen. Nekatu itxura zuen; hala ere, bere begi beltzek distiratzen jarraitzen zuten garai bateko irribarre atenastarrak aurpegia argitzen zionean. Gazte bat zuen ondoan. Keinu batez adierazi zion uko egiten ziola hurrengo kontradantzari. Gazteak diosala egin, eta erretiratu egin zen.

Eguna argitzen ari zuen. Dantzalekutik irten ginen eskutik helduta. Sylviek buruan zeramatzan loreak ile soltearen artean erortzen zitzaizkion; gerruntzeko sorta ere hostobakantzen ari zitzaion bere esku trebeaz eginiko farfail zimurtuen gainean. Etxera laguntzeko eskaintza egin nion. Egun argi bazen ere, eguraldia goibel zegoen. Theve ibaiaren zurrumurrua entzuten genuen gure ezkerrean, eta ur geldiko bihurtu-needan nenufar hori eta zuriak hazten ziren, eta ur-izarren bordatu hauskorrak bitxiloreek bezala distiratzen zuen. Soroetako belar-meta eta belar-sorten usaina burura igotzen zitzaidan mozkortu gabe, basoen eta elorri zuri loratuen

usain freskoarekin garai batean gertatzen zitzaidan bezala.

Ez zitzaigun bururatu soro haiek berriro zeharkatzea.

—Sylvie! —esan nion—. Ez nauzu maite!
Hasperen egin zuen.

—Zentzudunak izan behar dugu, ene lagun maitea —esan zidan—. Bizitzan gauzak ez dira guk nahi genukeen bezalakoak. Behin batean Heloïse berria-ri buruz hitz egin zenidan; irakurri nuen, eta hasi bezain laster honako esaldiak belhurtu egin ninduen: «Liburu hau irakurtzen duen neskarenak egin du». Hala eta guztiz ere, eta nire arrazoimenean fidaturik, irakurtzen jarraitu nuen. Gogoratzen al duzu nire osaba-izeben ezteijantziak jantzi genituen eguna?... Liburuko grabatuetan ere ezkongaiak antigoaleko traje zaharrez jantzita azaltzen ziren; beraz, niretzat, zu Saint Preux zinen, eta ni, berriz, Julie. Ai! Orduan itzuli izan bazina! Baina Italian omen zinen. Han ni baino neska askozaz ere politagoak ikusiko zenituen!

—Inork ez zuen zure begirada, Sylvie, ez eta zure aurpegiko hazpegi aratzak ere. Antzinako

ninfa bat zara, ez badakizu ere. Gainera, eskualde honetako basoak Erromako landa zabalekoak bezain ederrak dira. Han ikusten dituzun granitozko harkaitzak Italiakoak bezain ikusgarriak dira, eta bada ur-jauzi bat Terni-koa bezalakoa. Ez dut han ikusi dudan ezeren falta sentitzen hemen.

—Eta Parisen? —galdetu zuen.

—Parisen...

Buruari eragin nion erantzun gabe.

Bat-batean, aspalditik kezkatzen ninduen irudi hutsalean pentsatu nuen.

—Gera gaitezen hemen, Sylvie —esan nuen—. Nahi duzu?

Bere aurrean belaunikatu nintzen. Negarmalkotan aitortu nizkion nire zalantzak, nire kapritxoak; nire bizitza zeharkatzen zuen zorigaitzoko mamuaz mintzatu nintzaion.

—Salba nazazu! —erantsi nuen—. Zurea izango nauzu betiko!

Hunkituta begiratu zidan.

Une hartan barre-algara bortitz batzuek moztu zuten gure solasaldia. Sylvieren anaia zen, gure bila zetorrela festa-gau baten osteko

ohiko bozkarioaz eta asko edanak larregi susper-
tutako umore onaz. Elorrien artean galdurik zebi-
len dantzaldiko galaiari hots egiten zion, eta
hura ere berehala elkartu zitzaigun. Mutilari bere
lagunari lain kostatzen zitzaion zutik egotea, eta
urduriago jartzen zuen paristar baten presen-
tziak, Sylvierenak baino. Haren aurpegi apalak
eta adeitasun lotsatiak eragotzi egiten zidaten
berarekin nahigabetzea, berea bazen ere Sylvie
festan hain berandu arte geratu izanaren errua.
Ez nion arriskutsua iritzi.

—Erretiratzeko ordua dugu —esan zion Syl-
viek bere anaiari—. Gero arte! —esan zidan
masaila eskainiz.

Pretendientea ez zen mindu.

IX

ERMENONVILLE

Ez nuen lo egiteko batere gogorik. Montagny-ra joan nintzen osabaren etxea berriro ikustera. Fatxada horia eta kontraleiho berdeak begiztatu orduko tristura handia sentitu nuen. Dena aspaldian bezala zegoela zirudien, nahiz eta maizterrarenera joan behar izan nuen giltza eskatzera. Kontraleihoak irekirik, xamurki begietsi nituen altzari zaharrak, ikusi nuenean lehengo egoera berean jarraitzen zutela eta noizbehinka hautsa kentzen zietela. Han zegoen intxaurrondo zurezko armairu garaia, eta gure arbaso baten bi koadro flandestar, aspaldiko pintore baten lana omen zirenak; Boucherren tamaina handiko imitazioak eta *Emilio* eta *Heloïse berria*-ren grabatu sail markoztatu bat, Moreaurena; mahai gainean, bizirik ezagutu nuen zakur diseatu hat, basoetan zeharreko ibileretan laguntzen zidana, azken dogo txikia agian, desagerturiko arraza horretakoa baitzen.

—Loroa bizi da oraindik —esan zidan maizterrak—. Etxean daukat.

Lorategia landaretza basatiak hartuta zegoen eta itxura bikaina zuen. Bazter batean aspaldi neuk diseinaturiko haur-lorategia somatu nuen. Dardarka sartu nintzen kabinetean, non oraindik apalategi txikia zegoen liburu hautatuz betea, osaba zenaren lagun zaharrak, eta bulegoko mahai gainean, lorategian aurkitu zituen antzinako zenbait hondakin, pitxerrak, medaloï erro-matarrak... zoriontsu egiten zuen bertako bilduma arkeologikoa.

—Goazen loroa ikustera —esan nion maizterrari.

Loroa, garai onenetan bezala, gosaria eskatzeko ari zen, eta ximurduraz beteriko azalaz inguraturiko begi borobilaz begiratu zidan, zaharren begirada eskarmentatua gogorarazten duen begiaz.

Hain leku maiteetara eginiko itzulera berantiarrek ekarri zizkidan ideia tristeez beterik, Sylvie berriro ikusteko premia sentitu nuen, hura baitzen lur harekin lotzen ninduen izaki bizi eta gazte bakarra; beraz, Loisyranantz abiatu nintzen

berriro. Eguerdia zen; denak to zeuden, festa osteko nekearen nekez. Ermenonvilleraino oinez joatea otu zitzaidan denbora-pasa gisa, legoa bateko paseoa basoko bidetik. Udako egun zoragarria zen. Parke bateko ibilbidea zirudien bideak eta oso freskura gustagarria egiten zuen. Kolore berde berdineko haritz handiak hostaila dardaratidun urkien enbor zuriekin tartekatzen ziren. Txoriak isilik zeuden, eta okilak habia egiteko zuhaitzak mokokatzean ateratzen duen hotsa besterik ez zen entzuten. Galtzeko zorian egon nintzen une batez; izan ere, hainbat lekutan norabide ezberdinak iragartzen zituzten errotuluetan karaktere zirriborrotsu batzuk besterik ez ziren antzematen. Azkenik, *Basamortua* ezkerretara utziz, dantzaldiaren glorietara iritsi nintzen, non oraindik agureen eserlekuak irauten duen. *Anacharsis* eta *Emilio*-ren arkitektura-emaitza bitxi haren aurrean, antzinate filosofiko oroitzapen guztiak tropelean etorri zitzaizkidan burura, lursail haren lehengo jabeak berpizturik.

Sahats eta urritzen adarrartean zehar lakuko ur distiratsua ikusi nuenean aurkitu nuen azke-

nik osabak bere paseoetan aldizka eramaten ninduen lekua: *Filosofiaren tenplua* zen, here fundatzaileak zoritxarrez amaitu ez zuena. Tiburtina sibilaren tenpluaren forma du eta, oraindik zutik, pinudi baten babesean, Montaigne eta Descartes-ekin hasi eta Rousseau-rekin amaitzen diren pentsamenduaren izen handi guztiak jartzen ditu denen begien bistan. Eraikin amaitu gabea hondakin bihurturik dago; huntzak grazia bereziz oxkarratzen du eta harmailen arrailetan hazten diren sasiek hartuta dago. Han, umetan, zuriz jantzitako neskatilei portaera eta saiatze-sariak emateko antolatzen ziren festak ikusi nituen. Non ote dira muino inguruan zeuden larrosoak? Arkakaratsek eta mugurdiondoek estaltzen dituzte geratzen diren landareak, eta basalandare bihurtzen. Eta ereinotzak moztu egin ote dituzte, jada basora joan nahi ez duten nesken abestiak dioen bezala? Ez, Italia gozoko zuhaitz horiek hil egin dira gure zeru lanbrotsupean. Eskerrak Virgilioren aligustrea loratzen den oraindik, ateko frontispizioan inskribaturik dagoen maisuaren esaldia berretsi nahiko babiluen: *Rerum cognoscere causas!* Bai, tenplu hau

erortzen ari da beste hainbeste bezala! Gizon ahanzkor edo unatuak urrundu egingo dira inguru hauetatik, natura axolagabeak arteak lehian hartua zion lurra berreskuratuko du, baina jakitekoko egarriak eternala izaten jarraituko du, bera baita kemen eta egintza ororen iturri.

Hona hemen uharteko makalak eta Roussearen hilobia, haren errautsak gordetzen ez dituenak. Kementsuen esnea eman zenigun, jakitun handi horrek, eta gu ahulegiak ginen opariaz profitatzeko! Ahaztu egin ditugu zure irakaspenak, gure gurasoek bazekizkitenak, eta zure hitzaren zentzua galdu dugu, antzinako jakitunen azken oihartzuna zena. Ez dezagun etsi, hala ere, eta altxa dezagun begirada eguzkiantz, zuk une gorenean egin zenuen bezala!

Gaztelua ikusi dut berriro, inguratzen duten ur bareak, harkaitzen artean zinkurin egiten duen ur-jauzia eta herriaren bi aldeak lotzen dituen galtzada, zeinen angeluak lau usategik markatzen dituzten; soropila urrutiraino zabalitzen da mendixka itzaltsuen menpeko ordeka bat bezala; Gabrielleren dorrea lore iragankorrez mukuru dagoen aintzira artifizial baten uretan

islatzen da urrutian; aparraren borborra, intsektuen xuxurla... Ezinbestekoa da leku honi clarion aire kaltegarritik ihes egitea basamortu eta otalurretako hareharrietara, non txilar larrosak iratzeen berdetasuna nabarmentzen duen. Zein triste eta bakartia den hau guztia! Sylvieren begirada liluratuak, korrikaldi eroek, oihu alaiek... hain xarma handia ematen zieten garai batean ibili berri ditudan lekuei! Haur hezigabea zen artean, oinutsik ibiltzen zen, aurpegia eguzkiak belztua zuen, eta lastozko kapelaren xingola luzea ile beltzezko txirikordekin korapilatzen zitzaion. Gianja suitzarrera joaten ginenean esnea edatera, bertakoek esaten zidaten:

—Zein andregai polita duzun, paristarra!

Orduan ez zitzaion bertako baserritar bati inolaz ere bururatuko berarekin dantzatzea. Sylviek nirekin bakarrik dantzatzen zuen urtean behin, uztaiaren festan.

X

KANKAILU ILE-KIZKURRA

Loisyko bideari lotu nintzaion berriro. Jende guztia esna zegoen. Sylvie damatxo bat bezala zegoen jantzita, is hiriko modara. Logelara igoaz ninduen garai bateko inozentzia berberaz. Xarmaz beteriko irribarrea ezpainetan, bere begiek lehengo distira bera zuten, nahiz eta bekainen arku nabarmenak serio itxura ematen zion aldizka. Logelak dekorazio xumea zuen; altzariak, alabaina, modernoak ziren. Urre-koloroko markoa zuen ispilu bat zegoen jarrita lehengo kornukopiaren ordezt, non artzain idiliko bat ikus zitekeen artzainneska urdin eta larrosa bati habia bat eskaintzen. Antigoaleko errezel polit diskretu batez estalitako ohe zutabedunaren ordezt, intxaurrondo-zurezko ohetxo bat zegoen. Leihoan, lehen txinboak zeuden kaiolan, kanarioak zeuden orain. Gela hartatik lehenbailehen irteteko premia sentitu nuen, ez bainuen iraganeko aztarnarik aurkitzen.

—Ez al duzu gaur zure farfailetan lan egin behar? —galdetu nion Sylvieri.

—Utzi nion farfailak egiteari, orain ez ditu inork eskatzen. Chantilly-ko lantegiak ere itxi egin behar izan du.

—Eta orain zer egiten duzu?

Gelako txoko batera joan zen pintza handi baten antzeko burdinazko tresna baten bila.

—Zer da hori?

—Mekanika esaten diote; eskularruen larruari eusteko balio du, josi ahal izateko.

—Ene! Eskularrugile bihurtu al zara, Sylvie?

—Bai, Dammartin-erako aritzen gara, horrek orain asko ematen du; baina gaur ez dut ezer egingo, nahi duzun lekura joango gara.

Othyseko biderantz begiratu nuen: ezetz egin zuen buruaz; keinu hartaz izeba zaharra hilda zegoela jakinarazi zidan. Sylviek mutiko bati deitu, eta asto bat zelatzeko agindu zion.

—Atzotik nekatuta nago oraindak —esan zuen—, baina paseo batek on egingo dit. Goazen Chaalisera.

Eta basoan zehar abiatu ginen, adar batez armaturiko mutikoa atzetik genuelarik. Sylviek

berehalaxe gelditu nahi izan zuen eta besarkatu egin nuen esertzen lagundu nionean. Ezin genuen elkarrizketa intimorik izan. Pariseko bizi-modua kontatu behar izan nion, bidaiak...

—Zertara joan daiteke bat hain urruti?

—Horixe galdetu diot neure buruari berriro ikusi zaitudanean.

—Tira, tira... hori erraz esaten da.

—Zeuk ere badakizu lehen ez zinela hain ederra. —Ez dakit.

—Gogoratzen zara haurrak ginenean eta zu altuena? —Eta zu zentzudunena!

—Ai, Sylvie!

—Asto gainera igotzen gintuzten, bakoitza otarre batean.

—Eta *hika* egiten genion elkarri. Gogoratzen zara karramarroak harrapatzen erakusten zeni-danean Theve eta Nonetteko zubien azpian?

—Eta zure bular-anaiak egun batean udetatik atera zintuenean, gogoratzen zara?

—*Kankailu Ile-kizkurra!* Berak esan zidan zeharka zitekeela... *uda!*

Berehala aldatu nuen gaiaz. Oroitzapen hark biziki ekarri zidan gogora ni eskualdera etortzen

nintzen garaia, nekazariei barregura ematen zien trajetxo ingeles bat jantzita. Sylvieren iritziz soilik nengoen dotore; ez nintzen ausartu, hala ere, berari hain aspaldiko iritzi hura gogoraraztera. Ez dakit zergatik, Othys-eko izeba zaharraren etxean jantzi genituen eztei-trajeetarantz zuzendu zen nire pentsamendua. Non egongo ote ziren galdetu nion.

—Ai, zein ona zen! —esan zuen Sylviek—. Duela bi urte bere trajea utzi zidan Dammartineko mozorro-dantzara joateko. Handik urtebetera hil zen, gaixoa...

Ezin izan nion galdetu nolatan joan zen mozorrodantza batera, atsekabe handiz egiten baitzuen hasperen eta negar; baina konturatu nintzen bere artisaudohainei esker Sylvie ez zela jada neska baserritarra. Bere gurasoek lehengo bizimodua bazeramaten ere, berak maitagarri langile bat zirudien, oparotasuna zabaltzen zuena bere inguruan.

XI

ITZULERA

Basotik irtetean, paisajea ikusten zen. Chaa-liseko lakuen ertzera iritsi ginen. Klaustroko galeriak, ojiba liraineko kapera, dorre feudala eta Henri IV.aren eta Gabrielleren arteko amodioa babestu zuen gaztelu txikia ilunabarreko tonalitate gorritzaz tindatzen ziren basoko berde ilunaren gainean.

—Walter Scotten paisajea dirudi, ezta? — esan zuen Sylviek.

—Nork hitz egin dizu Walter Scotti buruz? — galdetu nion—. Erruz irakurri behar izan duzu hiru urte hauetan!... Nik liburuak ahazten saiatzen naiz, eta benetan gustatzen zaidana zurekin abadia zahar hau, txikitan ezkututzen gintuzten murru hondatu hauek, berriro bisitatzea da. Gogoratzen duzu, Sylvie, guardak monje gorrien historia kontatzen zigunean izaten zenuen beldurra?

—Ai, ez ezazu aipatu ere egin!

—Kanta ezazu, bada, aitaren etxeko lorategian, larrosozko zuripean, bahitu zuten neska ederraren abestia.

—Hori ez du gaur egun inork abesten.

—Ez zinen, bada, musikari egingo?

—Zertxobait ikasi dut.

—Ai, Sylvie, Sylvie, seguru opera abesten duzula!

—Zergatik kexatzen zara?

—Ahaire zaharrak gustatzen zitzaizkidalako, eta zuri ahaztu egingo zaizkizulako.

Sylviek aria moderno baten doinua xaramelatzeari ekin zion... *Fraseatu* egiten zuen!

Urmael hurbilak inguratu genituen. Aurrean genuen hainbeste dantzaldiren eszenatoki izandako zelai berdea, ezki eta zumarrez inguraturik. Antzinako harresi karolinjioak deskribatu nituen harro, eta Este etxeko harmarriak deszifratu.

—Hara bestea! Zuk nik baino askozaz gehiago irakurri duzu! Jakintsua zaitugu, beraz?

Gaitzespen tonuak min eman zidan. Ordura arte goizeko aitorenari berriz ekiteko leku apropos baten bila ibili nintzen; baina, zer esan niezaiokeen asto baten eta mutil bizkor baten kon-

painian, zeinak atsegin handia hartzen zuen guregana ahalik eta gehien hurbiltzen paristar batek nola hitz egiten zuen entzuteko? Orduan Chaaliseko agerpena azaldu nion nire zoritxarrerako, ezin bainuen burutik kendu. Adrienne abesten entzun nuen gazteluko sala berera eram nuen Sylvie.

—Tira! Kanta ezazu niretzat! —eskatu nion—. Zure ahots maiteak durundi egin dezala ganga hauen azpian eta uxa dezala tormentatzen nauen izpiritua, jainkotiarra nahiz zorigaiztokoa izan!

Eta nik abestia xuxurlatu ostean, Sylviek letra eta melodia errepikatu zituen:

Jaitsi zaitezte agudo, aingeruok
Purgatorioaren hondora... !

—Oso tristea da —esan zuen.

—Bikaina da... Uste dut Porpora-ren konposizio bat dela, XVI. mendean itzulitako bertso batzuetatik sortua.

—Ez dakit —erantzun zuen Sylviek.

Haranetik zehar itzuli ginen, Charleponteko bidetik, zeinari nekazariak, berez etnologian ez oso adituak, *Châllepont* deitzen dioten. Sylviek, astoaz asperturik, besotik heldu zidan euskarri bila. Bidean ez zebilen inor. Bihotzean neukan guztiaz mintzatzan ahalegintzen nintzen, baina, ez dakit zergatik, esapide trauskilak besterik ez zitzaizkidan bururatzen edo bestela, ustekabean, Sylviek irakurria izan zezakeen nobelaren bateko esaldi arranditsuren bat. Orduan gelditu egiten nintzen atsegin klasiko batez, eta bera harritu egiten zen etenaldi adeitsu haietaz. Saint-S...-eko hormetara heldu ginenean, arreta handiagoa jarri behar izan genuen ibiltzerakoan. Bihurka zihoazen errekaetoz beteriko zenbait belardi heze zeharkatu behar genituen.

—Zer dakizu mojaz? —galdetu nion hitzetik hortzera.

—Zu eta zure ditxosozko moja! Ongi da, esango dizut! Oso gaizki amaitu zuen.

Sylviek ez zidan ezer gehiago esan nahi izan. Konturatzen ote dira benetan emakumeak honelako edo halako hitza ezpainetatik irteten direla bihotzetik igaro gabe? Hain erraz engaina-

tzen dituztela ikusirik eta hain sarritan egiten dituzten aukeraketen arabera, ezetz esan behar-ko genuke: hain ongi antzezten dute gizon batzuek maitasunaren komedia! Ezin izan naiz sekula ohitu jokabide horretara, nahiz eta bada- kidan emakume askok jakinaren ganean onar- tzen dutela engainua. Bestalde, haurtzaroaz geroztik irauten duten amodioak sakratuak dira... Sylvie txikitatik ezagutzen nuen eta arre- ba bat bezalakoa zen niretzat. Ezin nintzen sedu- zitzailearena egiten hasi... Beste ideia bat arras ezberdina bururatu zitzaidan.

«Une honetan —esan nuen neure artean—, teatroan egongo nintzateke... Zer antzeztuko ote du Aureliek (hori zen aktoresaren izena) gaur gauean? Drama berriko printzesaren papera, seguruenik. Zein hunkigarria dagoen hirugarren ekitaldian!... Eta bigarrenko maitasun eszenan, zimurrez beteriko lehen galai horrekin... !»

—Zeure gogoetetan murgildu al zara? —gal- detu zuen Sylviek, eta abesten hasi zen.

Dammartinen badira hire neska lirain;
bat egun-argia baino ederragoa...

—Ai, zein gaiztoa zaren! —oihu egin nuen—. Ongi baino hobeto dakizkizu ahaire zaharrak, bai horixe!

—Maizago etorriko bazina, gogoratuko nituzke —erantzun zuen—; baina zentzuz jokatu beharra dago. Zuk Parisen duzu zure bizimodua, eta nik nire lana dut. Ez gaitezen beranduegi itzuli: bihar goiz jaiki behar dut.

XIII

«POTOLO»

Erantzun egin behar nion, bere aurrean belaunikatu, osabaren etxea eskaini, hainbat oinordeko ginenez eta ondasun hura zatitu gabe geratu zenez, oraindik ere berreskura bainezakeen; baina une hartan Loisyra iritsi ginen. Gure zain zeuden afaltzen hasteko. Tipulazoparen usain patriarkala urrutiraino zabaltzen zen. Festaren biharamuna zenez, zenbait bizilagun gonbidaturik zeuden. Berehala ezagutu nuen egurgile zahar bat, Potolo, aspaldiko gau-jaietan batzuetan oso ixtorio barregarriak eta besteetan oso beldurgarriak kontaktzen zizkiguna. Artzain, postari, basozain eta arrantzale izandakoa zen, hurrenez hurren, eta baita isileko ehiztari ere, eta tarteka-marteka kuku-erlojuak eta burduntziak egiten zituen. Urte askotan ibili zen Ermenonvillen barrena ingelesak paseatzen; Rousseau-ren meditazio lekuetara eramaten zituen eta haren azken momentuak kontaktzen zizkien. Mutikoa zela, hari eskatzen zion filosofoak bela-

rrak sailkatzeko eta hari eman zion astaperrexilak biltzeko agindua, zeinen zukua bere kafesne katiluan bota zuen. Urrezko Gurutze-ko ostalariak datu hori ukatzen zion eta hortik zetorkien elkarrenganako aspaldiko gorrotoa. Luzaz aurpegiatu izan zitzaion Potolori zenbait sekretu inuxenteren jabe izatea, hala nola behiak sendatzea atzekoz aurrera esandako berset batez eta ezkerreko oinaz eginiko gurutzearen seinaleaz, baina laster egin zien uko halako sineskeriei, Jean Jacquesekin izandako elkarrizketen oroitzapenari esker, berak zioenez.

—Kaixo! Zer zabilta hemen, paristar hori? —esan zidan Potolok—. Gure neskak galbideratzerara etorri zara?

—Nitaz ari al zara, Potolo?

—Ez al dituzu basora eramaten otsoa ez dagoenean?

—Zu bai zarela otsoa, Potolo.

—Ardirik aurkitzen nuenean izan nintzen, bai; orain, berriz, ahuntzak besterik ez ditut aurkitzen, eta ikusi beharko zenuke nola defendatzen diren! Zuek, orde, paristarrak, alproja galantak zarete. Arrazoi guztia zuen Jean Jacquesek esa-

ten zuenean: «Hirietako aire pozoitsua gizonaren galbidea da».

—Ongi asko dakizu zuk, Potolo, gizonak galbidea nonahi aurkitzen duela.

Potolok taberna-abesti bat kantatzeari ekin zion, eta ezin izan genuen geldiarazi denek buruz zekiten koplak lizun batera iritsi zenean. Gogotik erregutu bagenion ere, Sylviek ez zuen abestu nahi izan, esanez mahaira eserita ez zela abesten. Ordurako konturatu nintzen bezperako galaia haren ezkerrean eserita zegoela. Ez dakit zer zuen haren aurpegi borobilak, haren ile nahaspilatuak, ezaguna egiten zitzaidana. Zutitu zen, eta nire aulkiaren atzean jarriz galdetu zidan:

—Beraz, ez nauzu ezagutzen, ezta, paristarra?

Gu zerbitzatu ostean, postretarako itzuli berria zen andre zintzo batek esan zidan belarri:

—Ez al duzu zure bular-anaia ezagutzen?

Ohartarazi ez banindu, barregarri geratuko nintzatekeen.

—Ene! Zu zara, *Kankailu Ile-kizkur!* —oihu egin nuen—. *Udetatik atera ninduena!*

A zer barre-algarak eragin zizkiok Sylvieri nire aurkikuntzak!

—Bai, jauna —esan zuen mutilak ni besarkatuz—. Eta gogoan dut zilarrezko erloju eder bat zenuela, eta itzultzerakoan gehiago kezkatzen zinela erlojuaz, ez baitzebilen, zutaz baino. «*Mamorroa itxo* egin da, ez du tiktak egiten. Zer esango du osabak?».

—Mamorro bat erloju baten barruan! —esan zuen Potolok—. Hori sinestarazten diete hurrei Parisen!

Sylvie logurak zegoen eta pentsatu nuen ez nuela lekurik bere pentsamenduan. Bere gelara igo zen eta muxu eman nionean esan zidan:

—Bihar arte. Etor zaitez gu bisitatzera.

Potolo mahaira eserita zegoen oraindik Sylvain eta nire bular-anaiarekin. Solasean aritu ginen puska batean Louvreseko *ratafiat* botila baten inguruan.

XIII

AURELIE

Parisera! Kotxeak bost ordu behar izaten ditu. Ilunabarrerako iritsi nahi nuen. Zortzietan teatroan nintzen betiko lekuan; Aureliek inspirazioa eta xarma erruz zituela erakusten zuen garaiko talentu batek Schillerren erara eginiko bertso batzuen bidez. Bikain egon zen lorategiko eszenan. Laugarren ekitaldian ez zen azaltzen eta ni madame Prevosten loradendara joan nintzen lore-sorta bat erostera. Gutun maitekor bat erantsi nion, *Ezezagun bat* beste sinadurarik gabe. «Agian zerbait ziurtatuko dit etorkizunera-ko», pentsatu nuen neure artean. Eta biharamunean Alemaniako bidean nintzen.

Zer egin behar nuen han? Ordena pixka bat jarri nire sentimenduetan. Nobela bat idatziko banu, inork ez luke onartuko aldi berean bi amodioz maitemindutako bihotz baten historia. Sylviek ihes egiten bazidan, nire erruagatik zen; baina nahikoa izan zen egun batean berriro ikustea nire arima berpizteko. Aurrerantzean Zuhur-

tasunaren tenpluko estatua irribarretsu bat bezalako izango zen niretzat. Haren begiradak amildegiaren ertzean geldiarazi ninduen. Ez nuen nahi inolaz ere Aurelieren aurrean agertu lehian aritzeko haren ondoan une batez distiratu ostean lur jota erortzen ziren galai baldarren aurka.

«Egunen batean ikusiko dugu —esan nuen neure artean— emakume horrek bihotzik due-
nentz.»

Aurelie gaixo zegoela irakurri nuen goiz batean egunkarian. Salzburgoko mendietatik idatzi nion. Mistizismo germaniarrez blaituriko gutuna zenez, ezin espero nuen arrakasta handirik; baina, bestalde, ez nuen erantzunik eskatzen ere. Halabeharrak nire aide jokatzeari espero nuen, eta baita ezezagunak ere.

Hilabete batzuk igaro ziren. Bidaiek eta plazerrek uzten zizkidaten tarteetan drama poetiko bat idaztea erabaki nuen Colonna pintoreak Laura ederrarekiko izan nuen maitasunaren inguruan, azalduz nola gurasoek Laura moja sartu zuten eta nola maite izan zuen pintoreak azken egunera arte. Bazuen zerbait historia hark

nire kezka iraunkorrekin uztartzen zuena. Dramaren azken bertso-lerroa idatzi nuenean, Frantziara itzuli besterik ez nuen nahi.

Hortik aurrera, beste askoren historiaren errepikapena izan zen nirea. Teatro esaten dieten probaleku horietako zirkulu guztietatik pasatu nintzen. «Danborra jan eta zinbaloa edan dut», Eleusis-eko inizatuen esaerak, zentzu nabarmenik gabe, dioen bezala. Seguruenera esan nahiko du, premia izanez gero, zentzugabeberia eta absurduaren mugak gainditu behar direla. Niretzat zentzuzko gauza bakarra nire ideala konkistatzea eta zehaztea zen.

Aureliek onartu egin zuen Alemanian idatzi nuen dramaren paper nagusia. Ez dut sekula ahaztuko obra irakurtzeko baimena eman zidan eguna. Amodiozko eszenak berarentzat propio idatzi nituen. Benetan uste dut bihotz-bihotzez eta gogo handiz errezitatu nituela. Ondoren izan genuen elkarrizketan, bi gutunetako ezezaguna neu nintzela aitortu nion.

—Zoratuta zaude, baina etor zaitez berriro ni bisitatzerara... Ezin izan dut inoiz aurkitu ni maitatzen jakingo duen inor.

Ai, emakume! Maitasun bila zabilta... Eta ni, zer?

Hurrengo egunetan, berak seguruenik inoiz jaso izan zituen gutunik maitekor eta ederrenak idatzi nizkion. Berak zuhurtziaz beterikoak bidaltzen zizkidan. Halako batean hunkitu egin zen, deitu egin zidan, eta lehenagoko harreman batekin haustea oso latza egiten zitzaiola aitortu zidan.

—Benetan *ni naizenagatik* maite banauzu —esan zidan—, ulertuko duzu gizon batena baino ezin naitekeela izan.

Bi hilabete geroago, oso gutun adeitsua jaso nuen. Haren etxera joan nintzen berehala. Norbaitek datu preziatu bat jakinarazi zidan aurretik: gau batean zirkuluan ezagutu nuen gazte lerdan hura ejerzito kolonialeko zaldierian sartu berria omen zen.

Hurrengo udan zaldi lasterketak izango ziren Chantillyn. Aurelieren konpainiak antzezpen bat eskainiko zuen han. Konpainia herrira iristen zenean, zuzendariaren esanetara geratuko zen hire egunez. Garai batean Marivaux-en komedietako Dorante-ren papera antzezten zuen gizon

on-puska haren lagun egin nintzen. Lehen galai izandakoa luzaroan, bere azken arrakasta amorantearen paperean izan zuen Schiller imitatzen zuen obra hartan, zeinen antzezpenean prismatikoen bidez zimurrez beterik ikusi nuen. Hurbiletik gazteago zirudien eta, argal mantentzen zenez, bazterretako probintzietan itxura ona ematen zuen oraindik. Gartsua zen. Ni konpainiarekin batera nindoan *poeta jauna* bezala eta Senlis eta Dammartinera antzezpen batzuk egitera joateko konbentzitu nuen zuzendaria. Hark hasieran nahiago zuen Compiègne-ra joan, baina Aurelie bat etorri zen nire iritziarekin. Biharamunean, enpresari eta agintariekin tratuak ixten zituzten bitartean, bi zaldi akuratu nituen eta Aurelie eta biok Commelle-ko zingiretako bidea hartu genuen Blanche erreginaren gazteluan bazkaltzeko asmoz. Aureliek, amazonaz jantzirik, adats horaila solte, antzinako erregina bat bailitzan zeharkatzen zuen basoa, eta nekazariak txundituta geratzen ziren ikusten zutenean. Madame de F... zen hain itxura dotorez eta xarma handiz agurtzen ordura arte inoiz ikusi zuten emakume bakarra. Bazkalondoan Suitza

gogorarazten duten herrixka horietara jaitsi ginen, non Nonetteren urak hainbat zerrategi mugitzen dituen. Niri hain oroitzapen kuttunak zekarzkidaten bazter haiek interesatzen zitzaizkion, baina ez zioten zirrara berezirik sortzen. Orry ondoko gaztelura eramane nahi nuen, Adrienne lehenengo aldiz ikusi nuen zelaiunera. Ez zuen inolako emoziorik azaldu. Orduan dena kontatu nion; gauetan zehar antzemandako maitasun Karen sorburua aitortu nion, maitasun amestua izan zena gero, eta berarengan burutua, azkenik. Oso serio entzuten zidan.

—Zuk ez nauzu maite! —esan zidan—. Espero duzuna da nik esatea: «Aktorea eta moja emakume bera dira». Drama baten bila zabilta, besterik ez, eta ez diozu amaiera egokirik aurkitzen. Zoaz, ez dizut ezer sinesten.

Hitzok tximistargi bat bezala izan ziren. Luza-roan sentitutako poz eta gogo bizi bitxiak, ametsak, malkoak, etsipen eta xamurraldiak... ez al ziren, beraz, maitasuna? Zer zen, bada, maitasuna?

Aureliek parte hartu zuen gaueko antzezpean Senlisen. Iruditu zitzaidan konpainiako

zuzendaria zuela begiko, zimurduren lehen galai gaztea. Oso gizon adeitsua zen eta mesede batzuk eginak zizkion.

—Horrek bai maite nauela! —esan zidan Aureliek halako batean.

XV

AZKEN ORRIALDEA

Horiek dira bizitzaren egunsentian liluratzen eta nahasten gaituzten kimerak. Idatziz zehazten saiatu naiz ordena handirik gabe, baina bihotz askok ulertuko naute. Ilusioak banan-banan erortzen doaz, fruitu baten oskolak bezala, eta fruitua esperientzia da. Zapore mingotsa du; badu, ordea, bizkortzen duen zera mikatz bat ere —eta barkaidazue antigoaleko estilo hau. Rousseauk dio naturaren ikuskizunak gaitz guztiez kontsolatzen gaituela. Horregatik aldian-aldian lanbro artean galduriko nire Clarensko basoetara joaten naiz, Pariseko iparraldean. Zein aldatua dagoen dena!

Ermenonville! Oraindik orain antzinako idilioa, Gessnerren obratik bigarren aldiz itzulia, loratzen zen zure lurretan, eta zenuen izar bakarra galdu duzu, niretzat distira bikoitzez dir-dir egiten zuena! Urdina eta larrosa elkarren segidan, Aldebaran izar engainagarria bezala, Adrienne edo Sylvie zen, amodio bakar baten bi

erdiak. Bata ideal sublimea zen; bestea, berriz, errealitate ezia. Zer ardura zaizkit orain zure baso itzaltsuak eta aintzirak, edo zure basamortua? Othys, Montagny, Loisy, inguruko herrixka pobreak, Chaalis —zaharberritzen ari direna—, ez duzue garai haietako ezer gorde! Noiz edo behin leku bakarti eta zoragarri horiek berrikusteko premia sentitzen dut. Han antzematen ditut nire baitan naturaltasuna itxurakeria Zen garai bateko aztarna iheskorak; batzuetan irribarre egiten dut granitozko harrien saihetsean irakurtzen ditudanean Roucher-en ahapaldi batzuk, garai hartan sekulakoak iruditzen zitzaizkidanak, edo maxima moral batzuk iturri baten gainean edo Pan jainkoari eskainitako haitzulo baten ondoan. Hain kostu handiz hondeatutako urmaelek alferrik zabaltzen dute beren ur hila, zisneek arbuiatzen badute. Aspaldi joan ziren Condeta- rren ehizaldietako partaideek beren amazona harroekin desfilatzen zuten garaiak, ehiza- adarrek elkarri urrutitik erantzuten ziotela, oihartzu- nen eraginez ugaldurik!... Ermenonvillera zuzenean joateko biderik ere ez da gaur egun.

Batzuetan Creil eta Senlisetik zehar joaten naiz; besteetan, berriz, Dammartinetik.

Dammartinera ezin da ilunabarra baino lehen iritsi. Beraz, *San Juanen Irudia*-n hartzen dut ostatu. Nahiko gela txukuna eman ohi didate, antigoaleko tapizeria eta ispilu kornukopiadun batez apaindua. Merkedendetako altzariei aspal-di uko egin banien ere, gela honetan haietaz baliatzea egokitu zait azkenean. Goxo-goxo lo egiten da edredoiazen azpian, lurralde honetan ohi den bezala. Biharamun goizean, mahats-hosto eta larrosez inguraturiko leihoa irekitzen dudanean, hamar legoatako zeruertz berdea aurkitzen dut estasiaturik, non makalak ejerzitoak bezala lerrokaturik dauden. Hanhemenka zenbait herri gerizatzen dira kanpandorre zorrotzen azpian, hezur-punta tankerakoak, bertakok diotenaren arabera. Lehenik Othys bereizten da, gero Eve, gero Ver; Ermenonville ere begiztatuko litzateke, basoez haraindi kanpandorrea izango balu, baina leku filosofiko horretan ez dira elizaz arduratu. Ordeka hauetan arnasten den aire garbiaz birrikak ongi bete ostean, alaiki jaitsi

kalera, eta gozotegira joaten naiz bueltatxo ematera.

—Kaixo, *Kankailu Ile-kizkur!*

—Zer moduz, paristarra!

Haurtzaroko lagunarteko ukabilkadak ematen dizkiogu elkarri eta gero eskailera jakin bat igotzen dut, non bi haurren oihu alaiek harrera egiten didaten. Sylvieren irribarre atenastarra loratzen da distiratsu haien aurpegi xarmangarrietan.

«Agian hor zegoen zoriona, baina... », esaten dut neure artean.

Noiz edo behin Lolotte deitzen diot, eta berak Wertherren antz pixka bat aurkitzen dit, pistoletan izan ezik, modaz pasata baitaude. *Kankailu Ile-kizkurra* bazkariak arduratzen den bitartean, paseatzera joaten gara haurrekin, gazteluko adreiluzko dorre zaharren hondakinak inguratzen dituzten ezki-etorbideetan zehar. Eta umeez uztaiaren kofradeen tiro-ariketak egiten dituzten bitartean, aitaren geziak lastoan sartuz, guk poema batzuk irakurtzen ditugu, edo egun inprimatzen ez diren liburuxka zahar horietako orrialde batzuk.

Ahaztu egin zait esatea Aurelieren konpainiak Dammartinen antzezpena eskaini zuen egunean, Sylvie eraman nuela ikuskizunera, eta galdetu niola ea ez ote Zion aktoresari hartzen lehendik ezagutzen zuen norbaiten antza.

—Noren antza hartzen diozu zuk, bada?

—Gogoan duzu Adrienne?

Barre-algara ozena egin zuen eta esan zidan:

—Bururatzea ere!

Eta gero, bere buruari aurpegiratuko balio bezala, erantsi zuen hasperen eginez:

—Adrienne gaixoa! Saint-S...-eko komentuan hil zen 1832. urte inguruan.